

## Margaret Mead, Kultur Antropologiaren bidetarik

Paulo Agirrebaltzategi

1978ko azaroaren 15ean hil zen Margaret Mead. 76 urte zituen. Filadelfian jaioa, New York-en hil zen. Azken hiri honetan eman zuen bere bizitzaren eta lanaren handiena. Bertako Columbia Unibertsitatean ikasi zuen Psikologia eta ondoren Antropologia. Ruth Benedict eta Franz Boas izan zituen irakasle: eta horien jarraitzaile nagusienetakoa gertatu da USAko Antropologia kulturalaren historian. Haien ikasbideak eta pausoak jarraiki, Margaret Mead-ek landa-azterketetan (*field researches* di-relakoetan) eman zuen bere gaztaroa: Ginea Berrin egin zituen bereziki azterketa horiek.

Columbia Unibertsitatean bertan Antropologia irakatsi zuen, 1945ean hasi eta bere heriotzeraino. New York-eko American Museum of Natural History delakoan Etnologiaren arduraduna izan zen, 1926tik heriotzeraino. Hainbat kultur Instituziotan kide izan zen; eta behin baino gehiagotan bultzatzaile, zuzendari eta buru ere bai: «Society of Applied Anthropology» delakoaren buru, esate baterako. Cincinnati-ko Unibertsitateko Psikiatri Departamenduan ere Antropologia irakatsi izan zuen.

Margaret Mead Antropologo handien artean sartu da Entziklopedia nagusietara: *Encyclopaedia Universalis* delakoak, bes-teen artean, orrialde zabal bat eskaini dio. Bere heriotza dela eta, albistea ezezik, artikulu ugari eskaini dizkiote egunkariek eta aldizkariek. Zalantzarik gabe, bere leku berezi eta ohoragarria irabazia du Margaret Mead-ek Antropologiaren historian.

Zientzilariaren azterketa-liburu ugariez gainera, Antropologiaren mezu praktikoa herriarenganaten edo plazaratzen jakin izan zuen.

## Kulturen muinaren bila

Franz Boas-ek Antropologiaren bideak aldatu egin zituen, metodologia positiboa ezarriz. Hau da, zientzia emankorra izan nahi bazuen, beharrezkoa zuen Antropologiak, kulturen azterketa positibo, konkretu eta xehean finkatzea. Kultur barruti bakoitza bere autonomian aztertu beharrezkoa zen, eboluzionismoak teorizatu nahi zituen lege generalak alde batetara utziz.

Margaret Mead ere bide honetatik bideratu zen. Etnia bakoitzaren kultura bere eguneroko dinamikan aztertzen saiatu zen, inondik ekarritako lege orokorrik ezarri gabe. Izatez, metodo positibo hau Antropologia eboluzionistaren teoria handiak baino emankorragoa dela erakutsi dute Franz Boasen jarraitzaileek.

Metodologia honen oinarrian bi abiapuntu nagusi nabarmentzen ziren; elkarlotuak biak: kulturen arteko erlatibismoa eta kultura bakoitzaren nortasun-batasunak.

Herri edo etnia konkreturen baten kultura ez dago giza printzipio oinarrizko eta orokorren batzuren arabera juzgatzerik eta balioztatzerik. Gorputz autonomia da kultura bakoitza; eta ez dago inolako printzipio absoluturik (zibilizazio mendebalekoak eman lezakeena edo), hura ezagutzeko eta interpretatzeko giltza hutsa izan daitekeena. Kultura guztiak ezberdinak dira...

Bestalde, kultura bakoitzak bere batasuna du, eta horrexegatik bere nortasun propioa. Margaret Mead, alde honetatik, Ruth Benedict emakume antropologoaren jarraitzailea da: horren ikaslea izana zen, hain zuzen ere. Biok oso goitik jarri dute emakume zientzilariaren lekua, Antropologiaren alorrean.

Ruth Benedict-ek ez du kultura elementu- eta jokabide-multzorik nahasi bezala ulertzen, sistema egituratu bezala baizik. Herri bakoitzak, bere originaltasun eta guzti, balio- eta ulerpide-sistema sortu du. Sistema horixe da, hain zuzen ere, kultura. Balio- eta ulerpide-sistema hori herriaren eta herritarren jokabide eta bizikeraren markoa gertatzen da, jokabide-bizikera horiek definitzen dituena. Ruth Benedict-entzat, ordea, kulturen ikuskera hau ez zen aurreritziren bat, hainbat etniaren landa-azterketek eman zioten ondorioa baizik. «Eredu sistema» partikularra zela kultura bakoitza: hauxe atera zuen nagusienki

Ruth Benedict-ek bere antropologiako azterketatik. Eta eredu horietan nagusia eta sistema osoa batzen eta nolabait definitzen zuena zein zen bilatzen saiatu zen. Izan ere, kultura osoaren taju berezia funtsezko eredu horri dagokio.

Bide beretik abiatu zen Margaret Mead, berak aukeraturiko herriak aztertzean. Gizarte industrialdu eta modernoak oso konplexuak dira, eta beren barnean balio, jokabide eta ulerpide sistema kontradiktorioak biltzen dituzte. Alderantziz, «primitibo» deitzen diren gizarteak bakunagoak eta homogenoagoak dira: ba dute balio edo eredu nagusi bat, kultura osoari batasuna eta nortasuna ematen diona. Hauxe bilatzen eta definitzen saiatu zen bereziki Margaret Mead, berak aztertu zituen herrietan. Zortzi herri, hain zuzen ere: Indio Amerikanoen tribu bat, eta beste gehienak Ginea Berriko taldeak.

Geldian ez, baina kultureztapen edo sozialpen prozesuan aztertzen ditu bereziki herri hauen kulturak. Izan ere, autorearen kezka nagusienetako bat zera zen: USAko gizartean gazteriaren kultureztapenak sortzen zituen gatatzak, herri «primitibo» horien bitartez argitzea.

Margaret Mead-ek zera aurkitu zuen: Berak azterturiko giza taldeen kulturetan balio bakar nagusiren bat nabarmentzen eta nagusitzen dela, beste guztiei batasuna ematen diena. Eta horrela gizarteko homogenotasuna indarturik gelditzen da, kulturaren beraren bitartez.

Horrela Margaret Mead-ek eta honen erizkideek kultura bakoitzaren muinera heldu nahi zuten, kultura bakoitzaren erudia («cultural pattern») aurkitzera eta definitzera. Bide honetatik bakarrik antropologiak, psikologiaren laguntzarekin, bila eta zehatz zezakeen «kultur nortasun tipikoa», alde batetik; eta, bestetik, soziologiaren laguntzarekin, herriaren «izaera nazionala». Kultura konkretuaren markoan definitzen dira gizabanakoaren kultur nortasuna eta herriaren naziotasuna.

### **Antropologia, soziologia, psikologia**

Antropologiak mendebeteko bizitza luzea du, zientzia bezala. E. Tylor onartzen da Antropologiaren aitatzat. 1871an argitaratu zuen bere liburu nagusia: *Primitive Culture*. Gaur arte gorabehera handiak izan ditu zientzia berriak, bere alorra eta bere metologia finkatzeko. Eta oraindik ere ba da bat baino

gehiago, Antropologia kulturalari bere autonomia kendu nahi liokeenik.

Margaret Mead-ek bere meritu berezia du, kultur Antropologiaren finkatzean. Soziologiari eta psikologia sozialari buruz bereziki Antropologiaren lekua eta egitekoa definitzen eta maitzen saiatu izan da bera. Horretarako bereziki prestatua zegoen bera. Bere ama soziologoa zuen; haren amonak hezkuntzaren psikologia ikasia zuen. Margaret-ek berak, Antropologia baino lehen Psikologia ikasi zuen. Aparteko ingurunea bizi zuen, beraz, Antropologiak giza eta gizarte zientzien artean zuen lekua definitzeko.

Margaret Mead ez zen gelditu giza taldeen ohiturak, jokabideak, arauak, pentsakerak, mitoak, etab. deskribatzean bakarrik. Etnia bakoitzaren kulturaren ikuskera estatikoa eta atomizatua gainditzen saiatu zen. Mead-en asmoa beste bidetatik joan zen: hau da, kultur prozesu konkretuak aztertzea izan zuen bere egitekorik nagusiena: Giza taldearen tradizio kulturala nola ondorengoenganatzen edo transmititzen den, etab. Horrela hezkuntz eredu oso ezberdinak aurkitu ahal izan zituen. Azterketa haue-tarako bere psikologi zaletasunaz eta ikasketetaz baliatu zen. Beretzat Antropologia Psikologiarekin askozaz hurbilagoa zen, historiarekin baino. Alde honetatik, Antropologo eboluzionisten pentsaera gainditu behar zuen, Boas-en eskolari helduz. Eboluzionistek gehienbat zientzia historiko bezala ikusten zuten Antropologia: eta giza kulturaren eboluzioaren lege orokorrak argitzeko eta egiaztatzeko balio zuten kultura eta etnia konkretuen landa-azterketek.

Margaret Mead-ek aurrera zeraman Amerikako eskolak alde batera utzi zuen kultur eboluzio handiaren legeez teoritzatzea; eta bereziki Margaret Mead-ek berak nahiago zuen kultura konkretu bakoitzaren prozesu psikologikoa eta soziala aztertu.

Baina Antropologia tradizionalak beste lotura handi bat zeraman bere barnean, nolabait pobretu eta hestutu egiten zuena. Margaret Mead-ek herstura horietatik atera nahi zuen. Izan ere, metodologiaren aldetik ezezik, alorraren aldetik ere, Antropologia tradizionala «gizarte primitibo» loturik zegoen. Gure antropologoa, ordea, USAko gizarte modernoaren arazoez kezkatu zegoen, eta «herri primitibo» buruzko azterketa antropologikoak, bera bizi zeneko «herri modernoaren» arazoak argitzeko erabili zituen. Eta horrela Antropologiaren beraren alorra zabaltzeko nahi izan zuen, gizarte bakunetatik atereaz eta men-debaleko gizarte korplexuagotara murgilduz.

Baina «gizarte moderno» hauetan Antropologiak berehala Soziologiaren lehia aurkitzen du. Soziologoek susmo txarrez ikusten dute Antropologoaren «intromisioa».

Soziologiak inkesta du bere metodologiaren oinarria; Antropologiak, berriz, bere sorreratik, antropologoaren kontaktu pertsonala jarri izan du metodologiaren oinarritzat. Giza kontaktuzko metodologia hori bidezkoa eta bideragarria baldin bada «gizarte primitibo» bakun eta txikietan, egokia ote «gizarte moderno» konplexuetarako?

Margaret Mead-ek baietz dio. Antropologiarentzat kultura ez da elementu multzoa, eta bai sistema, koherentzia handiagokoa ala txikiagokoa, baina beti balio, arau eta ulerpide sistema. Antropologiak kulturaren barneko *ereduak* bilatzen ditu: eta horretarako ez dauka inkesta exhaustiborik egin beharrik —Soziologiak berak ere egiten ez duena, bestalde—. Gizartearen bizitzarekin kontaktuan ahal dituen berri gehienak jasoaz eta bilduaz, aurrez-aurreko elkarrizketen bidez, herriaren sorkari kulturazkoak aztertuz, etab., antropologoak aski du kulturaren beraren eredu nagusiak aurkitzeko.

Hil berri den Antropologoaren ustez, Antropologiak kidetasun handiagoa du Linguistikarekin, Soziologiarekin baino. Mead-en ustez, Antropologiak badu zeregin handirik gaurko gizarte konplexuotan eta modernootan, bere-berea duen metodologiari uko egin gabe. Eta ez bakarrik, «gizarte primitibo» buruzko azterketen aplikazio huts bezala; alderantziz, Antropologiak zuzenean «gizarte modernoak» aztertzeko bide egokia ematen du, horien kultur sistemak, ereduak eta prozesuak argitzeko eta bideratzeko.

### **Kultur Antropologia zertarako?**

Gaztetan, aztertzen zituen herrien nortasuna eta berezitasuna argitzen, definitzen eta finkatzen saiatu zen Margaret Mead. Baina gero, Unibertsitateko irakaslea eta Natur Zientzien Museoko Etnologi Departamenduaren zuzendaria zelarrik, USAko gizarteaz kezkatuak zebilen batez ere. Antropologiaren praktikotasunaz jabetu zen eta bere herritarrak jabetarazi nahi zituen. Bide horretatik, bere gaztaroan egindako azterketetaz baliatu zen, USAko zibilizazio konplexuaren arazo bizienak argitzeko eta konponbideratzeko.

Ez zituen sentimentalismo hutsak eraginik «gizarte primiti-

boen» landa-azterketak egin; baina utilitarismo hutsez erabili ote zituen azterketa horiek, bere inguruko gizartearen alde?

1939-1945 bitarteko gerlaren garaian, eta gerora ere, USAko Administrazioak antropologoek kontseilua eskatu zuen, herri etsaien ohitura, jokabideak eta erreakzio moduak ezagutzeko, eta horrela burruka harmatuarekin batera burruka psikologikoa muntatzeko. Alde hinetatik, Antropologiaren historian alderdi iluna izan zen hori: antropologoak USAko armadaren gerla taktikarako kontseilari bihurtu bait ziren, herrien arteko ulerketarako eta bakerako bideak urratu beharrean.

Margaret Mead ez zen gerla-kontseilari horietako izan. USAko gizartearen beraren etorkizunak kezkatzen zuen antropologo emakumea. Zibilizazio amerikanoari buruz itxaropen ona zuen Margaret-ek, eta hori eraberritzeko bideak erakutsi nahi zituen antropologiaren bidez. Baina Margaret Mead-ek onartua zuen zibilizazio amerikanoa, eredu bezala. Honek zera esan nahi zuen: zibilizazio hori ukatzera edota azpitik eta sakonetik astintzera zetorren edozein burrukak etsaitzat zuela antropologo emakumea. Ginea Berriko herriei batera, Ameriketako Indioen tribu bat ere aztertu zuen. Baina, arrazismoaren eta segregazionismoaren kontra idatzi zuen bezala, gutiengo etniko eta kulturazko horien nortasuna erabat zibilizazio amerikanoen barnean ikusten zuen; horregatik ez zuen onartzen gutiengo horiek, beren nortasuna eta berezitasuna berreskuratzeko eta finkatzeko, eman zezaketen burruka.

Alderantziz, Ameriketako gizarte arrazanitzekoan eta zibilizazio pluralistan integratu behar zutela uste zuen. Integrazio horrek asimilazioa eskatzen zuen seguraski.

Horrela, herri «primitibo» haien kultur nortasuna eta berezitasuna aitortzen, argitzen eta finkatzen saiatu zen antropologoa, Amerikako zibilizazio «aurreratuaren» defendatzaile eta erreformatzaile sutsu bihurtu zen. Antropologiak orduan, gerla-tresna ez denean ere, kulturen artean dabilen gerla historikoan irabazle eta garaila ateratzen direnen eskuetan zapalbidetzeko arriskua du.

Margaret Mead-ek ba du liburu bat, titulu hauxe duena: «Antropologia, giza zientzia». 1964ean idatzi zuen. Nolabait bere zientziako azterketak burutzen zituen liburu honen bidez. Baina zer-nolako filosofiaz burutzen zituen bere azterketa antropologikoak?

Egia da: Antropologiak bere historian zehar, «gizarte primi-

tiboekiko» sentimentalismo kutsu handia eraman izan du. Horren kontra beharrezkoa zuen gure gizarteko errealitate konkretu, gordin eta nahasian sartzea, benetan «herri modernoentzako» zientzia baliotsua izan zedin.

Bi asmo praktiko nagusi beharko lituzke Kultur Antropologiak, kultura bakoitzaren nortasuna eta berezitasuna finkatzen dituelarik. Hau da: alde batetik, giza kultura bakoitzaren indar-tzaile izatea, nahiz eta kultura hori zibilizazio handiaren historian eragile handietako ez izan; eta, bestetik, giza kultura guztien arteko harreman eta ulerpen sakonagoa eta zuzenagoa finkatzea eta areagotzea. Horretarako, Antropologiak unitate etniko eta kultura konkretu guztiak onartzera, errespetatzera eta bizkortzera bultzatu beharko lituzke herri guztiak, guztien artean giza zibilizazio historikoa osatzeko.

Inolako herria azpiratzeko edota bestelako kultura «handiago» batetan irensteko tresna bihurtzen den Antropologia kulturala ez da «giza zientzia».

Antropologo emakumearen eta beronen lanaren inguruan egin ditugun gogoeta guzti hauen ondoren, beste zerbait ere bada-torkigu burura. Estatu Espainoleko unibertsitatearen programaketan Kultur Antropologiak (edo Etnologiak) ez du, behar lu-keen lekua eta autonomia, nahiz katedraren bat edo beste Fa-kultate batetan edo bestetan izan. Estatu barneko nazionalitate eta herrien arteko ulertzea eta bereziki guztien kulturak finka-tzea egiaztatzeko eta areagotzeko, egokia eta beharrezkoa li-tzateke Kultur Antropologia, zientzia bezala, gorpuztea.

Euskal Unibertsitatean Kultur Antropologiak Departamendu osoa beharko luke gutxienez. Alde honetatik, UEU-n ere Kultur Antropologiaren saiá berezia landu beharko litzateke.

P. A.